

XABIER AMURIZA kontu zaharrak berritzen

Bertsolari bezala ezagun egiten ari zaigu Xabier Amuriza. Beharbada "Gogor" diskoan entzungo zenuten bere abotsa; geroago Zamorako gartzelan idatzirik bertsoak eskuz esku ibili ziren; orain zuzenean entzun diezaiokegu. Duela urtebete baino gehiago kanporatu bazen ere, barruan igarotako urteez ihar-dutea normala da.

ELIZA EUSKALDUNA ETA HERRIKOIA NAHI

— 1969ko maiatzean harrapatu gintuzten. Bost apaiz geunden Bilboko obispaduan gose greban: Nikola Telleria, Gabika, Kalzada, Naberan eta ni. Garai gogorra zen hura; "Ley de Bandidaje y Terrorismo" atera berria zuten eta izugarriko errepresioaldia erori zengure Herriarengana. Gose grebaren motiboak hauetxek izan ziren: alde batetik, Euskal Herrian eskubide oinarritzkoenak falta zirela; bestetik, Elizak ez zuela ezer egiten hori aldatzearen. Orduan Bilboko apezpiku zen Zirarda ere inbitatu genuen gose greban has zezan.

Borroka hau lehendik zetorren. 1968ko azaroaren 4ean hasi eta 25 egunez 60-70 apaiz egon ziren Derioko seminarioan sartuta. Ekintza honen helburu nagusiak hauetxek ziren: Euskal Herrian zegoen Eliza arrotza salatu eta Eliza euskaldun eta herrikoia baten alde ateratzea eta, era berean orduan apezpiku zen Gurrupide kendu eta berton aukeraturako bat jartzea. Poliziek, ahalegin guztiak egin bazituzten ere, ez zuten lortu Derion sartzerik. Hurrengo urtean ordea, sartu ziren, bai Bilboko obispaduan.

— Barruan geundela borroka haundia izan zen poliziaren eta Elizaren artean. Gu han geunden, bakarrik, poliziez inguraturik. Azkenean, hiru egun eta erdi generamatzala gose greban, gauez sartu eta Komisariara eraman gintuzten.

Hiru egun Komisarian, gero Basaurira eta beste hiru egun barru juizio itxia Burgosko Militar Hautzetegian. Gose greba eta haren helburuak esplikatzen zituen agiria ateratzea "rebelión militar" kontsideratu zuten eta "Ley de Bandidaje y Terrorismo" aplikatuz, Gabika eta Naberani hamabi urte ezarri zizkieten eta beste hiru-rei hamarna urte. "Uste dut han pasa zikigutela lehengo faktura guztiak", dio Amurizak.

Juizioaren ondoren hogeitatu egun eduki zituzten Basaurin eta handik Zamorago gartzelara eramane zituzten.

— 1968an ipini zuten gartzela hau apaizentzat. Gabika izan zen lehen presoak,

geroxeago Felipe Izagirre. Gu han sartzean zazpi-zortzi lagun bildu ginen: gu bostok, Garcia Salve eta Etxabe; hau Solsonan dago oraindik; 50 urte ezarri zizkioten, gero 30era jetxi bazizkioten ere. Gabika eta Naberan duela sei hilebete irten ziren, Kalzada orain dela gutxi eta Telleria berriz, joan zen urteko apirilean atera eta urrian hil zen. Sei urte pasa zituen gartzelan, hoietatik sei hilabete Carabanchelgo ospitalean. Oso gaixo zegoen, baina kondena guztia bete arte ez zioten irtetzen utzi; "libertad condicional"ik ere ez zioten eman.

GARTZELAN ERE BORROKAN

Gartzela txikia baina entzutetsua izan da Zamorako hau: gose grebak, motiña, ihesegiteko zuloa... 1969ko urrian izan zen lehen gose greba, Andoni Arrizabalagaren juizio zela eta. 1971an, urtebete eta gehiago gartzela azpitik pasatzen zen zuloa egiten pasa ondoan irten baino egun batzu lehentxeago, zaintzaileek antzeman zuten nonbait zerbait gertatzen zela eta zuloa deskubritu zuten.


Baina borroka jarraitu zen 1973. azaroan motiña eta ondoren gose greba egin ziren, Zamorako gartzela "concordataria" kentzeko eskatuz.

— Guk ez genuen pribilegiarik nahi, berez Zamoran egotea pribilegio ez bazen ere. Geure buruak preso politikotzat jotzen genituen eta handik atera eta beste-kin elkartzera eskatzen genuen.

Hamahiru egun gose greban zeudela, Carabanchelgo hospitalera eraman zituzten eta han astebete eduki.

— Uste genuen gure helburua lortu genuela eta gose grebari bukaera eman genion. Baina hartu eta berriro Zamorako gartzelara eramane gintuztenean, lehendik esanda zegoen bezala, berriro gose grebari ekin genion. Oraingoan hamasei egun egin genituen eta nahiko hondaturik geundenez gero, gose greba uztea erabaki genuen.

Gose greba egitea izugarriko gaiztakeria da nonbait eta lau hilabetez zeldatan egotera zi-



gortu zituzten.

— Neguak bete bete harrapatu gintuen zeldatan; ikaragarriko hotza pasa genuen, baina hau ez zen okerrrena: kanpoan gertatzen zenaren berririk ez genuen izan lau hilabetez, erabat inkomunikaturik egon ginen. Ondoren gartzela asko gortu zen. Sei presorentzat hiru zaintzaile genituen orduoro gure gain, eta tarteka beste hiru edo.

Goiko hoiek bazekiten zertan ziharduten. 1972tik aurrera ez zuten apaiz gehiago sartu Zamorago gartzelan.

— Bururatu zitzaion hara joaten zirenak txartu egiten zirela. Gu bakar bakarrik edukitzen saiatu ziren; horrela kontrola ere hobeto gorde zezaketen.

Hala eta guztiz ere, Zamorako gartzelan borrokari jarraitu zitzaion 1974ko abenduaren 11an, Euzkadi guztiko huelga orokorra zela eta berriro ere gose grebari ekin zioten. Berdin "Tupa" eta Otaegi epaitu zituztenean ere. Egun haietan kanporatu zuten Amuriza.●

ELIXABETE GARMENDIA

